



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek, otsoak Euskadin bizi dauen egoerea aztertzea eskatu dabe

Bilbon, 2015eko martiaren 27an

Gaur Bilbon batzartu dan Nekazaritza eta Ingurumeneko azkenengo batzordeak legealdi honetako beharrari amaiera emon deutso, Bizkaiko talde popularrak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena aho batez onartuz, Foru Aldundiak “Eusko Jaurlaritzaren aurrean otsoak gaur egun Euskadin eta inguruko Autonomia erkidegoetan eta Iberiar Penintsula osoan, bizi dauen egoerari buruzko azterlana bultzatu daian, Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan agertzen dan egoerea aldatzea komenigarria dan ala ez baloretako”.

Arturo Aldecoa batzordekide popularrak adierazo dauenez, haragijale “zintzo eta esetsitako” horren presentzia Bizkaian “aldian behingoa baino ez da”, eta presentzia txiki horri, iraganean Estaduan, otsoa guztiz desagertzea saihesteko “behar beste talde” egon diralako eusten jako. Dana dala, “2.000” baino ez dira geratzen –“%40” arrak– 500.000 metro karratuko azalera zabalean.

Proposamen popularra, alkarte ekologista guztiek, Euskal Administrazioak otsoak Euskadin bizi dauen egoerea aztertu daian aurrera eroandako ekimen batean oinarritzen da. Dana dala, Aldecoak dinoenez, beharrezkoa da ekologisten helburua “barriro formuletea”, “eskala handiagoan” egin ahal izateko, espezie hori asko mobiduten dalako autonomia erkidegoen artean.

PP-ko batzordekideak eskaerea egin dau azterlanak balizko bi kontuan hartu daizan: “espeziearen kontserbazinoa” eta bere presentzia dala eta “sortzen diran kalteen mugaketea”, “abeltzainen interesak ez diralako arriskuan jarri behar”.

Amaitzeko, Aldecoak, otsoak euskal heraldikan beteten dauen lekuari buruzko aitamena egin dau. Euskadigaz izandako hartu-emona “beti presente” egon da. Hori dala eta, bere eretxiz “akatsa” izango litzateke otsoaren irudia Euskadiko armarritik kentzea. “Gure sinboloa izan zan”, esan dau.

HITZARMENA EITB-GAZ

Beste alde batetik, batzordeak aho batez berretsi dau EITB-gaz dagoan hitzarmena barriztetea, 2015. urtean Sustraiak saioaren 30 programa ekoizteko, euskeraz eta gaztelaniaz. Hitzarmen horren bitartez, Eusko Jaurlaritzak 85.111 euro emongo ditu eta Bizkaiko Foru Aldundiak 48.331. Arabak 18.000 eurogaz lagunduko dau, eta Gipuzkoak 25.000 euro jarriko ditu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Juntas Generales pide que se estudie la situación del lobo en el País Vasco

En Bilbao, a 27 de marzo de 2015

La última comisión de Agricultura y Medio Ambiente, reunida hoy en Bilbao, ha terminado su trabajo en la legislatura con la aprobación, por unanimidad, de una Proposición No de Norma presentada por el grupo Popular Vizcaíno para que la Diputación Foral “apoye ante el Gobierno Vasco el estudio de la situación actual del lobo en el País Vasco, así como en las Comunidades Autónomas vecinas y en el conjunto de la Península Ibérica, para valorar la conveniencia de modificar su situación respecto al catálogo vasco de especies amenazadas.”

El apoderado popular Arturo Aldecoa ha sostenido que la presencia de este carnívoro “noble y perseguido” es “ocasional” en Bizkaia y se mantiene porque en el Estado ha habido “suficientes manadas” en el pasado para que no llegue a extinguirse del todo, aunque solo queden “2.000 ejemplares” -el “40%” machos-, en una vasta extensión de 500.000 metros cuadrados.

La propuesta popular se basa en una iniciativa realizada por todas las asociaciones ecologistas para que la Administración vasca realice un análisis de la situación del lobo en Euskadi, aunque Aldecoa sostiene que es necesario “reformular” la pretensión ecologista para que se haga a una “escala mayor” debido a la movilidad de esta especie entre comunidades autónomas.

El apoderado del PP ha pedido también que el estudio tenga en cuenta dos variables: "la conservación de la especie" y "la limitación de los daños ocasionados" por su presencia, ya que "no se deben comprometer los intereses de los ganaderos".

Para terminar, Aldecoa ha hecho un apunte a la presencia del lobo en la heráldica vasca. Su relación con el País Vasco ha estado “siempre presente”, de ahí que considere un “error” eliminar del escudo de Euskadi la imagen del lobo. “Fue nuestro símbolo”, ha dicho.

CONVENIO CON EITB

Por otro lado, la comisión ha ratificado por unanimidad la renovación del convenio con EITB para producir 30 programas en euskera y castellano del programa Sustraiak durante el 2015. Mediante el mismo, el Gobierno Vasco aportará 85.111 euros y la Diputación foral de Bizkaia 48.331. Álava contribuirá con 18.000 y Gipuzkoa con 25.000 euros.